



Herritar ugari hurbildu zen bigarren eskuko merkatura eta askok eraman zuten zerbitzua etxera.



Gordailuan ere hainbat objektu zeuden erosteko, hala nola, txirrinkak edo haurrentzako ahulkiak.

## Gauza asko prezio merkean erosteko aukera

Larunbatean ospatutako bigarren eskuko azokarekin eman zaio hasiera Aste Berdeari

**G**ure etxean alde batera utziak ditugun traste ugari ditugu, baina egoera onean daudenak. Objektu hauek guztiak biziberritzeko aukera izan zuten larunbatean Brigitarren plazan Lasarte-Oriako Udalak antolatuta zuten bigarren eskuko merkaturan.

Aurtengo Aste Berdeari hasiera eman zion ekimen honek eta herritar ugari parte hartu zuen, postuetan sal-

tzaile bezala, baita erosle moduan ere. Herritar asko izan ziren gordailuan gauzak utzi zituztenak ere.

Liburuak, jostailuak, mahai-jolasak, arropa, dekoraziorako objektuak, bizikletak, kirol-tresneria, antigoalekoak... denetik ikusteko aukera egon zen.

Baina Aste Berdea ez da amaitu, kultur etxean kontsumoari buruzko hitzaldi eta Udaberri elkartearen sukaldaritza ikastaroa egongo dira aste honetan. •



Elkarteen edo herritarren postuetako gauzen prezioei ederki begiratzen zieten merkatura hurbildu zirenek.



Porrotx eta Marimototsek Olaran aitari bisita egin zioten Wukron /4-5

KIROLA /2

Naiara Lizaso igerilari gaztea txapeldun izan zen Euskadiko Eskolarteko Jokoetan



Rocioko Amaren erromeria giro onean ospatu zen Atsobakarreko parkean/6



## ALBA

### ARROPA DENDA





**Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450**



**Zure zerbitzu teknikoak Lasarten!**

[www.servilink.com](http://www.servilink.com)

- Ordenagailuen konponketa eta mantenimendua
- Material informatikoaren salmenta
- Aholkularitza pertsonalizatua
- Web programazioa eta diseinua

Antxota kalea 1, behea, 4. lokala • 943 36 91 14 • Lasarte-Oria



Haurrak eta udal ordezkariak zozketaren ostean. Arg.: Lasarte-Oriako Udala

KIROL SUSTAPENA

**Giro ona azken saioan**

Lasarte-Orian 2010-2011 ikasturtean alebin mailako adinean dauden neska-mutilentzat garatu den kirola sustatzeko kanpainaren azkeneko saioa maiatzaren 28an egin zen Udalaren Kirol Gunean.

Aurtengo ikasturtean Lasarte-Oriako 30 bat neska mutilek hartu dute parte bertan eta hauetako gehienak, larunbatean bildu ziren atletismoko proba ezberdinak egiteko.

Eta kanpainari bukaera emateko, kurtsuan zehar saioetara maiz joan diren parte-hartzaileen artean kirol materiala zozketatu zen: kometa Julen Cubreirori egokitu zitzaion; patinak, Nerea Santanori; eta txirindua Beñat Loiarrek eskuratu zuen. •

PALA

**Santa Ana XXX. txapelketa hasi da**

Lehenengo astean, Santa Ana XXX. txapelketari hasiera eman zitzaion berrikuntza handi batekin, kokalekua. Orain arte, Michelin fabrika ondoko pilotalekuan jokatu baldin bada ere, bertan obretan daudenez, txapelketa Loidi Barreneko pilotaleku berrira lekua aldatu behar izan du antolakuntzak.

Gauzak honela, astean zehar, astelehenetik ostegunera, 18:30etatik aurrera lehiaketa honetako partidak ikusi ahal izango dira Loidi Barreneko pilotalekuan •



BURUNTZ AZPI ELKARTEA

**Compak-Sporting txapelketa antolatu du**

Buruntz Azpi elkarteak Compak-Sporting txapelketa antolatu du ekainaren 19an, Oiartzungo Arkaleko zelaian.

Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman behar du elkartearen egoitzan, Basaundi bailara 9an, edo telefonoz 943 370 685 zenbakira deituta, ekainaren 18a baino lehen. •

**Naiara Lizaso igerilaria Euskadiko txapeldun**

Iñigo Ibarburuk Estatuko beste gutxieneko marka bat egin du

**B**uruntzaldeko igeriketa taldeko gazteek ez dute atsedunik. Lehengo larunbatean maiatzaren 28an, bi txapelketa desberdinetan parte hartu eta bietan bikain igeri egin zuten.

Gasteizen leku izan zuten Euskadiko Eskolarteko kirol Jokoetan Igeriketa taldeko Naiara Lizasok eta Mikel Sotok parte hartu zuten.

Naiarak 100 m. tximeleta proba nagusitasun osoz eta bere marka hautsiz irabazi zuela, adierazi digu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Honetaz gain, Gipuzkoako 4x100 m. erreleboan ere parte hartu zuen Naiarak eta honetan ere, txapeldun izan zen.

Era berean, Mikel Sotok 100 m. eta 200 m. bular probetan seigarren postua eskuratu eta bere markak hobetu zituen.

**GIF Saria**

Sarizkoako Federazioaren 2. sarian, Itsaso Tolosa infantil mailan txapeldun izan zen berriro ere. Gainera, 200 m.



Naiara Lizaso Euskadiko Eskolarteko kirol Jokoetako podiumean. Arg.: Buruntzaldea IKT.

eta 50 m. bizkar frogetan bere marka hobetu zuen.

Bestetik, 100 m. libre proban bere marka hausteaz gain, Iñigo Ibarburuk 200 m. libre proban Espainiako gutxieneko marka egin zuen. Emaizta hauekin Iñigo hirugarrena izan zen Sari honetako sailkapen orokorrean.

**Markak hobetu**

Baina hauek ez ziren Sari horretan hautsi ziren marka

bakarrak izan, Buruntzaldeko beste sei igerilarik ere hobetu baitzituzten euren denbora onenak.

Parte hartu zuen bi probatan egin zuen marka pertsonala Kevin Iglesiasek, gainera 200 m. libretako marka hobetu zuen Mikel Esnalek, 100 m. libretakoa Jone Vazquezek, 50 m. libretakoa Garazi Alkorta eta azkenik, Haitz Mitxelena ere 400 m. libreetan bere marka hautsi zuen. •

**Herritarrak Zegama-Aizkorri proban**

**Z**egama-Aizkorri mendi maratoian, maiatzaren 29an, Ostadarreko korrikalari taldeko bi kide izan ziren korrika, Ramon Altuna eta Jose Ramon Mendizabal.

500 bat korrikalari irten ziren lasterketan, baina probaren gogortasunak eta giro sargoriak proba uztera eraman zituen korrikalari batzuk. Herriko bi korrikalariak aldiz, proba amaitu zuten Altunak 5:54:57 denbora egin zuen eta Mendizabalek, 6:54:06. •



Jose Ramon Mendizabal probako azken metroetan. Arg.: Ostadar atletismo saila

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Diploma banaketaren ostean, Lasarte-Usurbil BHIIn Batxilergoa amaitu duten ikasleak argazki honetan batu genituen.

## Institutuari agur esan diote

■ Lasarte-Usurbil BHIko 45 bat ikaslek amaitu dute Batxilergoa ■ Hiru ohorezko matrikula egon dira aurten

Institutuan egoteko garaia amaitu zaie Lasarte-Usurbil BHIko 2. Batxilergoko gazteei eta horren seinale, ostiralean egin zen diploma banaketa izan zen.

### Umorea nagusi

Banaketa honi zentzu akademikoa emateko, orain artean, irakasle batek gai bati buruzko hitzaldia eskaintzen zuen, karlistadak edo Charles Darwin, esate baterako.

Baina aurten, Mikel Ber-

mejo ikasle ohiaren bakarrizketa eta ikasleen laguntzaz egin zuen *Xalbame* saio umoretsua izan ziren. Ikasle, irakasle eta gurasoen barre algarak entzutekoak izan ziren.

### Ohorezko diplomak

Ostean, Ester Urrutia zuzendariak Marta Gil de Gomez ikasketa arduradunaren laguntzaz diplomak banatu zituen.

Urtero bezala, maila aka-

demiko onena duten ikasleei ohorezko diploma eman zitzairen. Aurten hiru izan ziren: Silvia Bardaji, Beatriz Fernandez eta Andoni Lotik eskuratu zituzten.

Banaketaren eta zuzendariaren azken oharren ostean, bokadu bat jateko astia izan zuten gazteek.

Baina ez dute atsendenik. Orain Selektibitatearen prestatu behar dute, ekainaren 9,10 eta 11an nota ona lortu nahi badute behintzat. •

## Udal batzar bereziak gaur aztertuko du Ana Urchueguia libratzen duen txostena

Lasarte-Oriako Udalean Lazken lau urteotan zinegotzi izan direnek azken aurreko batzarra egingo dute, gaur, goizeko 9:00etan, Somoton emandako diru-laguntzen ikerketari buruzko erabakia hartzeko. Ikerketa itxi egingo den ala ez erabakiko da gaurko batzar berezian.

Aurretik, Udaleko eta ikerketa batzordeko idazkari Xabier Ejeak egindako txostena eztabaidatuko da.

Idatzi honen arabera Ana Urchueguia alkate ohiaren jokabidean ez zen deliturik izan, legeak agintzen duenaren aurkako jokaerak egon zirela aitortu arren. Oposizio alderdiek aldiz, kontrako uste dute, eta alkate ohiaren aurkako akusazio partikularra Udalak berak egin dezala eskatzen dute.

Somotora bideratu ziren diru laguntzetan irregulatasunik egon zen eta Ana Urchueguia alkate ohiaren gobernauk zuzen jokatu zuten jakiteko Udalean sortu zen ikerketa batzordea aurreko ostegunean bildu zen eta Xabier Ejea idazkariak egindako txostena onartu egin zuen PSE-EEK duen gehiengoari esker. PP abstenitu egin zen eta EAJ, Plataforma, Ezker Batua eta Ezker Abertzaleko zinegotziek kontrako botua eman zuten.

### Oposizioaren zuzenketa

Alderdi hauek zuzenketa bat aurkeztu zuten elkarrekin, Ana Urchueguiaren jokabidean delitu zantzuak daudela uste baitute. Udalak alkate ohiaren aurkako akusazio partikularra erabili dezala eskatu zuten Ezker Abertzale-

ko, EAJko eta Plataformako ordezkariak emendakinean, baina proposamena ez zen onartu, noski, PSE-EEKo aurkako botuekin.

Oposizio alderdiek gogor kritikatu dute Xabier Ejea, txostena PSE eta PPRen aginduei jarraituz egin duela. Osteguneko bileran iritzi hori gezurtatu egin zuen idazkariak txostena ikerketan zehar jasotako frogetan oinarrituta egin duela adieraziz.

Dena den berriro aitortu zuen kooperazio laguntzak ematerakoan ez zela legeak agindutakoa bete, juridikoki existitzen ez diren entitateei emateari eta ondorengo kontrol eta ikuskatzeari dagokionez.

Aurreko legealdiko ordezkariak legez aukera dute lanean jarraitzeko zinegotzi eta alkate berriak izendatu arte. •

### UN VIAJE PARA TODOS

## Landaberri BHI eta Lasarte-Usurbil institutuko ikasleak sarituak

ONCE fundazioak antolatutako *Un viaje para todos* izenburuko XXVII. eskolarteko lehiaketan herriko bi institutuetakoko, Landaberri BHIko eta Lasarte-Usurbil BHIko DBHIko gazteek saria eskuratu dute.

Institutuetako taldeek bidai agentzia izango balira, *Un viaje para todos* eskaintza bereziaren kartela egin behar zuten. Bertan, guztientzako egokitua den bidai bat zela ikusi behar zen.

Lasarte-Usurbil institutuko DBHIko ikasleek Gipuzkoako txapelketako C maila eskuratu zuten *Menage* lanarekin.

Landaberri BHIko Iraia Iparragirrek berriz, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketako D mailako sariak lortu ditu itsu rasta baten kartelarekin, baina Estatukoan ez du zortirik izan. •



### ERAKUSKETA

## Brancussi marrazki eskolako ikasleen erakusketa dago kultur etxean

Jose Manuel Mongek zuzentzen duen Brancussi marrazki eskolako ikasleek, seigarren urtez, erakusketa jarri dute kultur etxean.

Kolorez betetako olio-pinturak, arkatzarekin edo akuarelarekin margotutako lanak aurkeztu dituzte.

Hauetaz gozatzeko ostegunera arte dago aukera, arratsalde 18:00etatik 21:30era. •

### 76.URTEURRENA

## Alkoholiko Anonimoen 76. urteurrena

Ekainaren 10ean 76 urte izango dira Akron hirian New York burtsako artekari batek Alkoholiko Anonimoen elkarte sortu zuenetik. Horregatik aste honetan zehar elkarteko kideek hainbat ekintza prestatu dituzte urteurren hori ospatzeko.

Lasarte-Oriako taldeak ere bat egingo du ospakizunekin eta gaur bertan, Villa Mirentxuko egoitzan bilera irekia egingo dute. "Herriarrei hurbildu eta ireki nahi" dietela adierazi digute taldeko arduradunek. Arratsaldeko 19:30etan jarri dute hitzordua eta honetan, proiektzio bat ikusteaz gain, ohizko bilera egingo dela jakinarazi dute. •

### PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

## 200 herritar baino gehiago lip-dubean

Herriko pailazo bihurriek, Pirritx, Porrotx eta Marimotots 200 lagun baino gehiago bildu zituzten larunbatean Villa Mirentxu inguruetan.

Irrien lagun klubeko abestia ointzat hartuta, herriko elkarte eta hainbat lagunek lip-dub koloretsu eta dibertigarrian parte hartu zuten. •



# Porrotx eta Mari Motots lagunekin Etiopian

■ Bi aste egon ziren Angel Olanan misiolari hernaniarraren egitasmoak ezagutzen ■ Bi mila umezurtz-ez arduratzen da ■ Wukro hirian 20.000 arbola landatu ditu 20 urtean ■ Umeei irria itzultzen dien Hortz Klinika gustatu zaie pailazoei

Porrotx eta Mari Motots, bi aste egon dira Etiopian, apirilaren 18tik 30era, senide eta lagunekin, Angel Olanan Hernaniko misiolariak Wukro hirian daukan proiektuak ezagutzeko. 20 urtetan hainbat gauza jarri ditu martxan Aita Zurien lagunarteko misiolariak, besteak beste, Lanbide eta Nekazal Eskola, zaharrentzako jangela solidarioa, eta umezurtzei laguntzeko, arbolak landatzeko edota edateko ura etxeetara eramateko ahaletinak...

Jon ALTUNA

**A**ngel Olanan misiolariak Porrotx eta Mari Motots-en bisita jaso zuten apirilaren. Oso ezaguna da Etiopiako Wukro herriaren inguruan, Abba Melaku izenarekin, eta bere lana ikustera joan ziren pailazoak gero Euskal Herriari haur eta helduei ezagutarazteko. Eta bi astetan hain ibili ziren eskolak ezagutu, arbolak urrezatu eta haurrei magia egiten.

Senide eta lagunekin joan ziren bi pailazoak Etiopiarra, guztira 15 lasarteoriatar: besteak beste, Edu Galardi eta Isa Fz de Agirre; euren alabak, Maider eta Ane; Jose Mari Agirretxe, Donetz Iradi, Oihari eta Izar euren seme-alabak, Juan Mari eta Josu Agirretxe anaia, Murtxe Rodriguez, Biki Pozo,...

Hiru hegazkin hartu zituzten taldeak Wukroa iristeko: Barzelona-Estanbul-Addis Abeba-Mekele eta handik autobusez joan ziren Wukroa, ia bi egun bidaian. Garai berean Euskal izan zen Ifaki Guridi euskal kazetaria ere eta erreportajeak egin zituen Euskadi Irritirako eta Berria egunkarirako.

Gabonetan Etiopia Utopia talderen bidez Angel Olanan ezagutzeko aukera izan zuten pailazoek, eta, Wukron haurren irriak sendatzen dituen hortz klinikaren proiektua ezagutzera joan ziren apirilaren Porrotx eta Mari Motots Etio-

piara. Eta Angel Olanekin borondate onenarekin Etiopian burutzen duen lana eta proiektu ezberdinak Euskal Herriari ezagutarazteko zenbait bideo grabatu zituzten.

## 20 urte Etiopian

Aita Zurien Kongregazioko misiolari, Angel Olanan, aurreko mende erdialdean abiatu zen Tanzaniara 23 urterekin, 20 urte eman zituen bertan eta beste hainbeste Etiopian. Hain juxtu duela 20 urte Etiopiari independentzia lortu zuen Eritreak baina bi aldean arteko afera ez zen lasaitu eta garai zailak bizitu zituzten duela hamar urte inguru, Eritrea eta Etiopiaren arteko gerra piztu zelako (1998-2000).

20 urteotan ekimen asko bultzatu ditu Angel Olanekin Wukron; proiektu oso zabala dauka martxan, batez ere, behar handiena dutenei laguntza eta hezkuntza emateko: ezer ez duten zaharrak garbitu eta elikatzen dituzte; bi mila umezurtzen ardua dauka misiolariak, lanbide eta nekazal eskola edota jangela solidarioa daukate, erlekak zaintzen dituzte, baratzak landu, zuhaitzak landatu (20.000 20

*Ez da Euskal Herriatik kanpo pailazoek egin duten lehenengo elkartasun keinua, bidaia eta abentura zaleak dira*



Lasarteoriatarrek bi aste pasa zituzten Wukron, eta besteak beste Geraltako mendietan, arbola erraldoia ikusten eta atleta etiopiarrek ezagutzen izan ziren.



urtean), edateko ura herrira eraman edota nekazaritza-ahelutzaintza bultzatzen lanean dihardute,.... Wukron bere bidea egiten ari da Olanan eta ezin ukatu gizon ausarta dela: lasarteoriatarrek hain zuzelada parapentean salto egin zuten Leongo bikote batekin.

Isa Fernandez de Agirre bizkarrean kamera hartu eta bizpahiru urte darama lanean Pirritx eta Porrotxekin. Hauen webguneari egunerokotasuna emateko, tarteka erreportajeak eta bideoak jartzen dituzte sarean azken urteotan, azkena Etiopiako abenturari buruzkoa.

Ez da Euskal Herriatik kanpo pailazoek egin duten lehenengo elkartasun keinua, bidaia

*Kamera profesionala sartzeko baimena ezin lortu, eta zazpi orduko eztabaidaren ondoren aireportuan utzi behar izan zuten*

eta abentura zaleak direla ezin baita ukatu: besteak beste aurretik AEBtako Idahon, Nikaraguan, Kuban, Saharan, Katalunian eta Palestinan egon baitira Etiopiarra joan etorriaren aurretik.

## Kamera aireportuan

Etiopiako bidaian grabatutakoa www.irrienlagunak.com web orrialdean ikusi daiteke, baina hemendik eraman zuten kamera profesionala erabiltzeko ez dute izan, kalitate gutxiago duen beste bat baizik.

Kamerak erabiltzeko eta grabaketak egiteko baimenak eskuratu behar izaten dira eta Edu Galardiak kontatu digunez, "kontrakoa uste baguenem ere, ez geneukan baimenik, eta

aireportuan zazpi ordu eztabaidan pasa ondoren, ez genuen kamera eramaterik izan". Addis Abeba aireportuan utzi behar izan zuten kamera ona.

Berez grabaketak, hainbeste kalitate eta baliabiderik eskaintzen ez duen beste kamera batekin (badaezpada eraman zuten "etxekoarekin") egin behar izan bazuten ere, nahiko ondo atera ziren, Edu Galardiren iritziz.

Pailazoak Angel Olan-en "lurraldera" iritsi zirenetik hasita, hainbat gauza grabatu zituzten hango eguneroko bizimodu islatzeko: eskola txiki batean, aldatutako arbolak ureztatzen, hortz klinikain... eta festa xume batean ere bai. Pailazoei "banbula" deitzen

zieten etiopiarrek (italiarrez panpina da banbula). Italiarrak egon ziren Etiopian, baina ez zuten aginterik hartu.

## Txangoak

Aita Zurien Saint Mary egoitzako gelatan egiten zuten lo zakuetan taldetan banatuta, Angel Olanari lagundu eta zenbait toki ezagutzeko aukera izan dute, 50 metro inguruko diametroa zuen zuhaitz izugarri bat ikusten eta Geraltako mendietan egon ziren: lautada batean altxatzen den mendikatea oso polita da. Ez da oso altua, baina gainean meseta bat eta amidegiak ditu.

Pobreziak eta ur gabeziak ukitu ditu gehiena. "Txirotasuna bertatik bertara egunerokotasunean ikusteak txunditu gaitu: Etiopia osoa zeharkatzen duen errepide nagusitik urrundura ahala, Wukro hiririk koporantz joan ahala, pobregaok dira. Bestalde, guk ez dugur ur gabeziarik sekula ezagutu, eta

hain konturatu gara zer balioa duen. Uraren aprobetxamenduetan inpresionatzen dugu". Lehor xamarra da Etiopia, Ekuatoretik gertu dagoelako, eta goizeko 7etatik buru gainean zuten eguzkia. Beraz astero-astero hainbat lagun elkartu eta arbolak ureztatzen dituzte. Duela 20 urte arbola bakan batzuek zeuden Wukron eta urte hauetan 20.000 landatu dituzte. Pixkanaka belarra, zuhaitzak, eta zuhaitzak ateratzen ari dira eta garaipean handia da hori Olan eta lagunentzat.

Elkizurari dagokionez, gauza normalak jaten dituzte, etxeko baratzeko baratzak, besteak beste berenjena, aza, azenario eta patatak; arroza eta

*Duela 20 urte arbola bakan batzuek zeuden Wukron. Angel Olan bertan denetik, 20.000 inguru landatu dituzte*



Angel Olanekin ausarta zela erakutsi zuten menditik parapentean salto eginda.

eta azkenean kafea ematen dute probatzeko eta dasatzeko. "Kontua da oso garesti dagoela kafea merkatuan,..."

## Korrikalariekin

Edu Galardientzat esperientzia pertsonal berezia izan da, Etiopiar estimu handia izan diolako beti: atleta etiopiar batzuek asko miresten dituela adierazteko aukera ere izan zuten egun horietan. "Mamo Wolde eta Abebe Bikila bezalako korrikalari mitikorik ez nuen hemen ikusterik izan, baina bai ondorengoak, 80. Harmekaldian etorri zirenak, Berhalesiasse eta beste hainbat. Beti ikusten nituen bere txikitasunean oso indartsu, oin hutzik korrika,.... Keniarrak ere etorritzen ziren baina ez nituen hainbeste miresten". Etiopiatar hirituta itzuli da: "futbol selektioz ez dago, atletismo zale amarra-

tuak dira". Bere ustez, altueran, 2.000 metrotan, entrenatzen dutelako dira hain korrikalari onak: "Eta asko ibiltzen direlako; egunero azoka dagoen herrietara joaten dira bikitatik, goizean goiz jaiki eta oinez, agian herria hamar bat kilometro bada ere. Eta gero itzuli. Ez daukate beste zer eginik, hori da beraien bizitza".

Goizeko seiretan jaikita, entrenamendu bat ikustera joan ziren eta ia Etiopia Utopia elkartearen bitartez Behobia Donostia lasterketara etorri ziren lau etiopiarretatik bat ikusteko aukera izan zuten. Edu Galardiak 16-17 urteko neskatza batzuekin batera egin zuten korrika, "mutirik azkaregi zebiltzan eta. Ilusioa egin zidan". Dena den, "batek esan zidanez, Wukrokoak ez dira onenak, baizik eta Addis Abeba ingurukoak". •

Erreportaje osoa, [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) webgunean

**ANAIAK**  
JANTZI-DENDA  
40 URTE ZUEKIN !!  
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386

*Leire*  
JATEN DUGUNA GARA!  
*Azandegia*  
KALITATEA PREZIO JUSTUAN  
Gure 1. urteurrena, gure bezeroei OPARIAK banatzen, ospatu nahi dugu  
Eskerrik asko guregan jarritako konfidantzagatik  
Zorionak gure bezeroei !  
Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946  
Iñigo de Ioyola 17 • Irun (Larraundi) • Tel.:943 624146  
ORDUTEGIA  
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara  
Astearte eta ostiralean arratsaldeaz 17:00etatik 19:30era





Gustura egon ziren elkarte gonbidatuak Atsobakarreko parkean jarri ziren karpetan.



Mezaren ostean, Rocioko amaren irudia herriko kaleetatik barrena erromerian eraman zuten.

# Rocioko giro alaiak Atsobakar parkean

Seblante Andaluz elkar-  
teak antolatutako XIX.  
Rocioko Erromeria izan  
zela eatzo eta herriko kale-  
tan sevillanaz jantzitako jen-  
dea ikusi ahal izan genuen.  
Atsobakarreko parkean pae-  
lla, rebujitoa, fino ardoa, sevi-  
llanak, pasodobleak,...  
Rocioko erromeriko giroa  
izan zen nagusi atzo egun  
osoan zehar.

## Rocioko Amaren ohorez

Arantzazuko Amaren parro-  
kian ospatu zen Rocioko  
Amaren ohorezko mezarekin  
eman zioten hasiera egun  
berezi honi. Herriko elkarte-  
ko abesbatzak giroa izan zen  
meza eta besteak beste, *Salve  
rociera* kantua eskaini zioten  
birjinari.

Amaitzean, Rocioko birji-  
na hartuta herriko kaleetatik

barrena erromerian Atsoba-  
karreko parkeko zelaietaraino  
egin zuten bidea.

Eta bertan egun berezi  
honetako ekintza guztiak  
burutu zituzten.

## Tortilla lehiaketa

Lehenik, Patata Tortilla lehi-  
aketaren lehenengo edizioa  
egin zen.

Hamalau tortilla goxo aur-  
keztu ziren eta epaimahaiko-  
ek lan gogorra izan zuten  
erabakia hartzeko.

Irabazlea Irati Gandara  
izan zen ea bigarrena Arantxa  
Fontan. Biek puntuazio bera  
eskuratu bazuten ere, 36  
puntu, 10 gehiago izateak  
garaipena eman zion Irati  
Gandarari.

Ondoren, Abdon Fernan-  
dez Seblante Andaluz elkar-  
teko lehendakariak hitz

batzuk esan eta ohorezko  
ardoa ekaini zuten udal orde-  
kariak eta gonbidatutako  
elkarteetako lehendakariak.

## Dantza nagusi

Seblante Andaluzeko abes-  
batza eta dantza taldeek baz-  
kalostetik esnatu zituen  
erromeriako parte hartzaileak.

Emanaldien ostean, inbi-  
dian geratu zirenek gorputza  
ederki astintzeko aukera izan  
zuten sevillana eta pasodo-  
bleak dantzatzeko.

Honetaz gain, patata torti-  
lla sari banaketa egin zuten  
eta Rocioko kofradiako  
urdaiazpikoa ere zozketatu  
zen.

Eta egunari amaiera eman  
baino lehen, Rocioko Amak  
herria hurbildutako Andalu-  
ziako elkarte guztiei bisita  
egin zien. •



Seblante Andaluzeko dantza taldeen emanaldiak herritar ugari bildu zituen parkean.



Oholtzako dantzak amaitzean, jendeak ederki gozatu zuten sevillanekin.



## Futboleko porrako sariak banatu ziren.

Ostadar K.F. antolatzen duen Futbol porrako 2. itzuliko sariak  
ostiralean banatu ziren, Sasoeta auzoko Aita Mari tabernan.  
Itzuli honetako diru sari eta urdaiazpikoez gain, bi itzulietako  
onenari, Don Javier Clemente txartelari ere 1.000 eurotako saria  
eman zioten Ostadarreko lagunek. •

# Abesbatzen anaitasuna

Doinu klasikoak eta herri-  
koiak entzun ziren larun-  
batean Ama Brigitarren  
kaperan, Legazpiko Santikutz  
abiesbatzaren eskutik.

Kaperara hurbildu ziren  
herritarrek musikari handien  
lanek gozatu zuten kontzertu-  
ko lehengo zatian. Bigarre-  
nean, berriz, hemengo eta  
hango doinu herrikoiak eskaini  
zuten Legazpiko abesbatzak.

Kontzertu hau herriko  
Alboka abesbatzak urtean  
zehar egiten dituen trukakete-  
tako bat da. Herriko abesba-  
tzak hurrengo urrian egingo  
die bisita Santikutz abesbatza-  
ko lagunei. •



Legazpiko Santikutz abesbatzak kontzertu polita eskaini zuten Brigitarren komentuan.

## Egunero

### Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN, Vanessa Gimeno diseinatutako kamisetak egongo dira ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



## Ostirala, 17

### Kontzertua

JOKIN GOENAGA akordeoi jolearen emanaldia Xpression eta Udalak duten hitzarmenaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



## Brancussiko ikasleen margo erakusketa kulturetxean

BRANCUSSIKO ikasleen VI. margo erakusketa. Kolorea eta marrazkia izango dira nagusi eta teknika ugari izango dira ikusgai. Batetik teknika lehorrak (errotulagailuak, ikatz-marrazkiak, pastel-pinturak), bestetik teknika bustiak (akuarela, akrilikoak eta olio-pinturak).

EGUNERO, EKAINAREN 3TIK 10ERA  
KULTURETXEAN 18:00ETATIK 21:00ETARA

## Ostirala, 17

### Kontzertua

YEMAMAHREN emanaldia. Musika Brasildarra, Bossa, Pop... gozatzeko aukera. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



## Osteguna, 30

### Kontzertua

AUPA QUARTET, soka laukotearen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.



## IX. Antzerki eta Dantza Astea

EUSKARAZ, KULTURETXEAN  
KUKUKA ESKOLA

### Astehena, 6

11:00etan eta 19:00etan  
Goazen jolastera, Mimo bat naiz eta Burugorri institutoan, HH eta LH.

### Asteartea, 7

11:15etan eta 19:00etan  
Hollywoodeko izarrak eta Eskale musikariak, LH 4koen emanaldia.

### Asteazkena, 8

11:15etan eta 19:00etan  
Bizko-bizko, txoo!, Txanpon bila New Yorken eta Erasoak akabo, LH 6.

### Osteguna, 9

11:15etan eta 19:00etan  
Klown abenturak, LH 5eko gaztetxoaren emanaldia.

### Ostirala, 10

22:30ean  
LarrialdiAIAIAIA, helduen talde baten emanaldia.

### Larunbata, 11

20:00etan  
Bizitzaren zirkoa, gazteen taldeak eta Cromtech Añorgako taldeak.

22:30ean  
Andrearen urtea, helduen taldea eta 20 urte hamaika bertute Jalgunen taldeko kideen emanaldia.

## Liburutegiko ordutegia

Astehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue  
ostiralero 9:45etik 11:00etara

## Oharrak

### Arcachonera joateko hirugarren autobusa

Kuadrillategi eta Gazte klube-ko gaztetxoek iteera egingo dute ekainaren 19an Arcachon-eko uretako parkera eta izena eman duten haur kopurua ikusirik, Ttakunek beste autobus bat jartzea erabaki du. Erreserban zeuden gazteek haien lekua ziurtatzeko Ttakunera hurbildu behar dute eta 30 euroak ordaindu, baita oraindik izena eman ez dutenek ere, hirugarren autobusbis horretako lekuak bete arte.

### Sorgin Dantzako entsaioak

San Pedro egunean Oriako Sorgin Dantzan atera nahi dutenek bihurtik aurrera, entseguak dituzte, Landaberri BHiko patioan astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita.

Era berean, gogorarazten da, haurren zortzikotean joan nahi duten urteetan 1997, 1998 eta 1999. jaiotako gaztetxoek kultur etxeko Gazte informazioan izena eman behar dutela.

### Udako Txoko eta Kanpaldietako gurasoekin bilerak

Udako Txoko eta Kanpaldietarako gutxi geratzen da eta hurrengo astean, ekainaren 9tik hasita, Manuel Lekuona kultur etxean ekimen desberdinetako programak azaltzeko guraso bilerak egingo dira.

Txikien, HH2-HH4 bitarteko haurren, guraso bilera ekainaren 9an arratsaldeko 17:00etan euskaraz eta 17:45ean erdaraz izango da. HH5-LH2 haurren bilera ere ekainaren 9an izango da,

18:30ean, euskaraz eta 19:15ean, erdaraz. LH3-LH6 mailako gaztetxoaren bilera ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 17:45ean, euskaraz eta 19:00etan, erdaraz. Abuztuko txokoetako programazioaren berri ematea ere ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 19:30ean.

Bestalde kanpaldietako bilerak honako hauek dira: Askizura doazen haurren gurasoak ekainaren 10ean arratsaldeko 17:00etan; Mendigorriara doazenak ere ekainaren 10ean dute bilera, baina arratsaldeko 18:45ean eta KTGko gaztetxoena ekainaren 17an arratsaldeko 18:00etan izango da.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko

aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaen esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikorrek bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).





Porrotzekin haurrek ederki gozatu zuten. Txupina bota, magia egin eta zezena atera zuen ostiralean Teresa sorgina begira zuela.

Haurrek ederki gozatu zuten puzgarriekin eta Hipo eta Tomaxen ikuskizunarekin.

## Asteburuan jai giroa Zabaleta auzoan

Egun hauetan aldapa igo eta eguraldiari aurre eginenez Zabaletako jaietaz gozatu edo festan parte hartzerantz hurbildu den herritar kopurua handia izan da.

Ostiral arratsaldean eurik atsedena eman eta haurrek ederki gozatu zuten Teresa sorginaren etorrerarekin eta aurretik egindako merienda eta antzerkiarekin. Porrotzek bota du aurten txupina.

Ostean, helduen txanda izan zen eta Antonio Blas plaza musikaz bete zen. Lehenik, dantza garikidearen emanaldiaz disfrutatzen auzoan egon zen eta ondoren, Xumela abesbatzak betiko abestiak eskaini zituen. Gauari amaiera ederra emateko Itzartu eta Ahuen taldeak kontzertua eskaini zuten.

### Puzgarrien festa

Larunbatean eguzkiren beroari aurre eginez, haurrak ederki ibili ziren Irrien Lagunek prestatutako puzgarrietan eta barre eta algara ugari entzun

ziren Hipo eta Tomax pila-zoen emanaldian.

Honetaz gain, helduentzat eskoba, mus eta pote txapelketa antolatu ziren.

Eta gauean, bertso saioan, Ane Labaka, Uxue Alberdi, Andoni Otamendi eta Julio Soto fin aritu ziren oholtzan.

Gaueko Itzalak, Eratu eta talde sorpresarekin ordu txikitant amaitu zen eguna auzoko gazteentzat.

### Baserritar giroa

Atzo, jaien azken egunean auzokide eta herritarrek baserritarrez jantzi ziren.

Eguna Landaberrri ikastolako dantza saioarekin hasi zen eta ondoren urteroko proba mistoa egin zuten, baita idi proba ere.

Kirolaren ostean, herri bazkaria eta erromeria izan ziren.

Eta hau guztiaz gain, Teresa Sorginari hurrengo urtera arte agur esan baino lehen, haurrak herri kiroltan ibiltzeko aukera izan zuten. •



Goiko argazkian, Tellerigaineko taldeak irabazi zuen proba mistoa. Behean, idi probako irudia. Idiek 1.400 kilotako harria eraman zuten.



**IES Hernani BHI**  
A. Iturriaga - K. Labaka

institutua@hernanibhi.com  
www.hernanibhi.com

**AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 10era**

**HEZIKETA ZIKLOAK**

**ERDI MAILA**

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak **berria**

**GOI MAILA**

- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Sistema Elektroteknikoak eta automatizatua
- Gizarte eta kultur animazioa **berria**

**SARBIDE PROBA**

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa

**HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK**

**PCPI**

- Mekanizazio langilea **berria**
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea

**ESKAINITZA PARTZIALA**

- Instalazio elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana

A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI  
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI